

Irudi trukatuak

Antton Izagirre

Nolako harriduraz hartzen genituen gure herrietako festetara etortzen ziren barraken artean, gela ilun batean sartu eta gure gorputz irudiak eraldatzen zituzten ispilu jokoak. Baten aurrean jarri eta gure irudia mozkote eta gizen egiten zuen, beste batek burua handi eta gorputza traket bilakatzen zuen, harako besteak, aldiz, fin eta erakargarri egiten gintuen. Bigarren itzulian bizkor eta presaka igaroko genituen gogoko ez ziren irudiak islatzen zizkiguten ispiluak eta behin eta berriz planto egingo genuen gure gorputzaren irudia garaiko estereotipoetara moldatzen zuen ispiluaren aurrean,

nahiz eta jakin gela hartatik kanpo erreallitateak lehenera itzuliko gintuela. Eta hala ez balitz? Eta ispiluek gure erreallitatea besteen begietan eraldatzeko gaitasuna balute?

Begien aurrean ditugun zenbait komunikabidek ispilu haien modura irudiak trukatzeko gaitasuna ekartzen digute gogora. Ikusi ahal izan dugu nola agintean dagoen talde politikoaren arabera irudia trukatzen duten komunikabideek. Nola egun batean ekonomiaren etorkizuna iluna zen, ekonomia atzerabidean zen, eta handik gutxira ekonomiak goranzko joera itxaropentsua hartzen zuen. Egun batean ezkor eta gainbehera zen gai bat

bera nola egun gutxiren buruan itxaropenez gainezka agertzen zitzaigun.

Pentsakizun hauek zera galdetzeraz garamatzate derrigor: erreallitatea aldagarria da ala ezinbestean komunikabideek aurrean jartzen diguten ispiluak eskaintako irudi trukatuak ikustera ohitzean datza eraldaketa? Egungo klase politikoak gizartearen eraldaketa politikoa eta soziala ala ispilu eraldatzailearen jabe izatea du helburu?

Abagune honetan, gizarte mugimenduari dagokio klase politikoaren eta komunikabide handien aurrean jarri eta pentsamendu kritikoa zorrotasunez jorratzea. •

Zuloak eta itoginak

Naiara Garzia

Zuloekin eman nion hasiera zutabe honi duela bi urte inguru ("Zuloak"). Formalista errusiarrak, XIX. mendeko Ingalaterrako idazle erromantikoak, Henry Miller, Doris Lessing, Agatha Christie, Virginia Woolf, Rosenberg senar-emazteak, Simone de Beauvoir, erromantiko alemaniarrak (Fichte, Schlegel, Herder, Novalis, Hölderlin...), surrealistak, Seattle buruzagia, Julio Cortázar, Eugenio de Andrade, Marguerite Yourcenar, Meyerhold, Neruda, García Marquez, Claude Levi-Strauss, Clara Obligado...

Hauek izan dira bi urte hauetan nire euskarriak, artikuluetan eta artikuluetatik gaindi (izan ere benetako euskarriak beti baitira sostengu paperetik kanpo, bestela ez dute benetako baliorik).

Buruan dituzun erreferentzia horien izenak aipatzea justizia egiteko bidea da, zuk esandako hitzak zeinek sortu zituen argitzekoa eta nolabait ere hitz horiek hilezkortzekoa. Beste askok, berriz, beraien ezjakintasuna estaltzeko erabiltzen dituzte izen horiek, baina zulo horiek ezin dira inolaz ere estali eta ez zaizkigu interesatzen.

Bizi beharra dago, zeruari eta zuhaitzei begiratu, hankak uretan sartu eta gure buruak jantzi.

Walt Whitman datorkit gogora oraingoan. «*I exist as I am / If no other in the world be aware I sit content, / And if each and all be aware I sit content*».

Gure gorputza eta gure burua ahalik eta dotoreen eta aberatsen izan dadin, eta ez Alberto Giacomettiren "Oinez dabilen gizona" estatua bezala, gizon arruntaren metafora, bere egoera sozialak harrapatua.

Libreago. •